



Gomendio espezifikoak

ELIKADURA

- Elikadura produktua zuzenean bezeroarentzat ontziratuta gabe ikusgai badago, beira-arasean, plastikozkoan, kristalezkoan, metakrilatozkoan edo higieena bermatzen duen beste material batean babestu beharko da.
- Arrantza produktu edo fruta eta barazkien kasuan horiei zuzendutako gunean bezeroaren eta produktuen arteko segurtasun distantzia ezarri daiteke, saltokiaren tamainaren arabera.
- Saltzaile zein bezeroek eskularruak erabili ontziratuta gabeko produktuak manipulatu behar dituztenean.
- Elikadura-segurtasun araudia jarraitu beharko da uneoro.